

TREBAKUNTZA 2023-05: HANDIEGIRIK, GEHIEGIRIK...

Gaztelaniazko *demasiado*=*mucho* moldea kalkatzetik dator euskaraz GEHIEGI, HANDIEGI... oker erabiltzea. Akats horiek zuzentzen hasteko, hona hemen gaizki egindakoak zuzentzeko irizpide batzuk.

OHARRA: asteriskoz eta kurtsibaz idatzitako esaldiak gaizki daude, eta gainerakoak zuzen.

OHIKO AKATSAK

1. * Ez dut gogo **gehiegi** inori azalpenak ematen ibiltzeko.
2. * Ez naiz **trebeegia** musika kontuetan.
3. * Bizitzera etxetik urrun joan behar izanak ez zion aldaketa **handiegirik** ekarri.
4. * Etxeko lanak egitea ez zait **gehiegi** gustatzen.
5. * Ez dut **gehiegi** ulertu.
6. * Ez daukat umore **onegia** festara joateko.

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uma.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699

ZUZENKETAK ETA AZALPENA

1. Ez dut gogo **handirik** inori azalpenak ematen ibiltzeko.
2. Ez naiz **oso trebea** musika kontuetan.
3. Bizitzera etxetik urrun joan behar izanak ez zion aldaketa **handirik** ekarri.
4. Etxeko lanak egitea ez zait **asko(rik)** gustatzen.
5. Ez dut **askorik/gauza handirik** ulertu.
6. Ez daukat **umore onik/umorerik** festara joateko.

Azalpenotatik zerbait ulertu ez baduzu, edo gehiago sakontzeko ariketarik nahi baduzu, jarri harremanetan UEMako teknikariarekin edo zure udaleko euskara teknikariarekin.

Telefonoz: 946 279 195 (Iratxe)

Posta elektronikoz: iratxe.udalak@uema.eus (Iratxe)

Hurrengora arte!

Udalerri Euskaldunen Mankomunitatea

www.uema.eus

Donibane enparantza 1, 1.a
48380 Aulesti
Bizkaia
946 279 195

Aialde 2
20180 Oiartzun
Gipuzkoa
943 260 372

Azoka Plaza
Enparantza Nagusia 11, 6. bulegoa
20734 Azpeitia
Gipuzkoa
943 816 699